

## Bigarren proiektua (ondoko 3-4 asteak)

Goizeko harrera orotara 20 min				
Mota	Zer	Helburua	Nola	Materiala
Talderatze jokoak	Parraxiuta jokoak	Talde kohesioa piztu	Hasi aitzin azaldu parraxiuta jokoen helburu nagusia talde kohesioa eta plazerra direla. 12 joko ezberdin, aldiro 1-2 hauta.	Parraxiuta baloia Jokoen zerrenda
Zentratzea	Yoga	Estresa hipitu Areta areagotu Gorputza ezagutu	Helburuak azaldu <u>Lehen jarduerak, aste batez</u> : esnatu berri naiz <u>Bigarren jarduerak, beste aste batez</u> : konzentratzen naiz <u>Hirugarren jarduerak, aste batez ere</u> : sasoi betean nago Posturak egin arau irudiak A3an arbelan afitxa daitezke. Ttipiz emaiten ahal zaizkie ere erritual kaierako... Azken astean nahasketa bat proposa daiteke, edo liburu bereko ipuin erlaxagarriak.	Tapizak musika lasaia posturen afitxak A3an ( <u>Kika yoga egiten</u> )
Eguraldia	Irudi eguraldia	Sentimenduak adierazi	Abere bat banintz ? Lore bat banintz ? ... ? Lehen astean, margoketa bat dena abere, sentimenduaren arabera margotzen dute, bakarra, egunka. Bigarren astean, berdin beste irudi batzuekin. Hirugarren astean, ahoz, 2naka « goiz huntan abere bat banintz, ... nintzateke zeren eta... ».	Abereen, loreen,... margoketa ezberdinak

Arratsaldeko errituala 15 min

Mota	Zer	Helburua	Nola	Materiala
Berriz lotzea	Txiskola	Elkar ezagutzea Irri egitea	Txiskola kantua ikasten dute. Bakotzak bere kaieran kolatzen du, A3an afitxatzen da arbelan. Jokoa azaltzen zaie, txiskola kaneta pasatzen da, azkenik eskutan duenak, 2 hauta : *idekitzen du eta barnean den galdera bat nahi duenari pausatzen dio *txiste bat hartzen du eta lagunei irakurtzen die Jokoa berriz hasten da kantuarekin...	Txiskola kaneta Galdera etiketak Txiste etiketak Txiskola kantua A4 eta A3an

Egun bukaerako gora beherak 10 min

Mota	Zer	Helburua	Nola	Materiala
Bilana	Zer ikasi dut?	Egunaren bilana egin Etxera lasai joan	Zer ikasi dut egun? Talde Hipika, 3 motak aipatuz : *jakintza *egiten ikasi *izaten ikasi	Mintza makila Gora beheren papera

## AMA IKASTOLAN

*Egunean hiru une ikusten dira egoki erritualen hasteko...*


Lehen erritual unea, aire hartzetik itzultzean : zentratzea eta eguraldia (yoga eta abere edo loreena egokia izan daiteke)

Bigarren errituala, eguerdi aitzin : talde kohesioa (txiskolarena egokia izan daiteke, irakasleak irakurritz galdera eta txisteen aukera kenduz...)

Hirugarren errituala, arratsalde bukaeran : bilana (zer ikasi dut egin daiteke ahoz, 3 motak ezberdindu gabe eta laguntzeko adibideak emanez)

## Nola sentitzen naiz goiz huntan ?

Irudikatzeko, abere bat hautatzen dut eta margotzen...



## Nola sentitzen naiz goiz huntan ?

Irudikatzeko, abere bat hautatzen dut eta margotzen...




## Nola sentitzen naiz goiz huntan ?

Irudikatzeko, abere bat hautatzen dut eta margotzen...



## Nola sentitzen naiz goiz huntan ?

Irudikatzeko, abere bat hautatzen dut eta margotzen...



## Nola sentitzen naiz goiz huntan ?

Irudikatzeko, lore bat hautatzen dut eta margotzen...





## Nola sentitzen naiz goiz huntan ?

Irudikatzeko, lore bat hautatzen dut eta margotzen...



## Nola sentitzen naiz goiz huntan ?

Irudikatzeko, lore bat hautatzen dut eta margotzen...



## Nola sentitzen naiz goiz huntan ?

Irudikatzeko, lore bat hautatzen dut eta margotzen...



## **PARAXÜTA JOKOAK**

### **Fruitu entselada**

Haurrak paraxütaren inguruan dira, borobilean.  
Hasieran bi hurrei kolore, zenbaki, abere izen...berdina emaiten zaie  
(haur guziek zerbait behar dute!).

Helduak kolore, zenbaki ala abere izen hori erraiten duelarik,  
bi hurrek lekuz trukatu behar dute besteek altxatutako paraxütak zola hunki aintzin.

*Leku aldaketa egin daiteke ere hilabete jakin batean sortu diren  
haurrak lekuz trukaraziz, herri berdinean bizi direnak...*

### **Parez par**

Paraxütaren inguruan dira haurrak. Erdi batek talde bat osatzen du,  
beste erdiak bigarren taldea.

Paraxütaren erdian baloin bat bada.

Helburua: baloina beste taldearen euskaldetik erorraraztea.

### **Ile elektrikoak**

Taldearen erdia paraxütaren azpian da jarririk. Bestea inguruan.

Emeki alde batetik bestera paraxüta mugituko dute,  
torradurekin ileetan elektrizitatea sortuko du!

### **Suziriak**

Paraxütaren azpian hanpatutako baloinak badira.

Haur batzuk paraxütaren inguruan dira, baloinak ez dituen azpitik aira.  
Anartean beste batzuk paraxütaren gainean pasatuz zartaaraziko dituzte.

### **Zapi ihizia**

Paraxütaren koloreko zapiak paraxütaren azpian ezarriak dira, bat koloreka. Haurrak  
inguruan dira. Paraxütaren kolore bat errana da. Haurrak hunkitzen duen eskutokiaren  
arabera, azpira joan beharko du ahal bezain fite zapiaren xerka!

### **Kuku gordeka**

Haurrak musikaren erritmoan, espazio batean, mugitzen dira. Musika gelditzean  
haurrak konkortu behar dira begiak estalirik.

Irakasleak bi haur paraxütaren azpian gordeko ditu. Besteek nor diren asmatu  
beharko dute!

### **Antzerkiko agurra**

Haurrak paraxütaren inguruan dira xutik. Aldizka haien izena erranen dute keinu  
batekin (Adibidez: "Exte deitzen naiz" eskuin eskua altxatuz). Ondotik denek  
agurtuko dute (Egun on Exte!) keinu berdina errepikatuz.

### **Armiarma sarea**

Jokoarentzat harilko bat behar da. Haur batek bere burua hariarekin inguratuko du eta harilkoa beste haur batu botako, bere izena erranez.  
Bukaeran, haur guziak elgarri artilearekin lotuak izanen dira.  
Desegiteko gauza bera egin beharko dute bainan alderantziz!

### **Etxe kanbiatzaileak**

Jokoa hasi aitzin bi talde egiten dira. Aldizka ari izanen dira.  
Paraxütaren azpian objektuak ezarriak dira eta bazterrean, kanpoan, kutxa bat.  
Lehen taldekoak paraxütaren itzulian dira. Besteak bazterrean sartzeko prest.  
Taldeka paraxüta atxatzean, besteak objektuen xerka joan behar dira, kutxan ezartzeko. Kasu! Paraxüta bakarrik erortzen utziko da, jautsia izanen delarik ezingo da gehiago objekturik hartu. Ondotik taldeak trukatu dira.

### **Beldarra**

Haur guziak paraxütaren itzulian dira. Altxatu eta denek pauso bat azpira egingen dute, paraxüta haien buruarne gainera erortzen utziz.  
Beldarraren burua nor den erran eta denek bere mugimendua, norabidea segitu beharko dute, paraxütaren azpitik atera gabe!

### **Mimoa**

Haurrak paraxütaren itzulian dira.  
Airera botako dute, anartean azpian batek mimo bat egin beharko du eta atera paraxüta jautsi aitzin!

### **Marrazoa**

Haurrak paraxütaren inguruan dira etzanik, zangoak azpian.  
Paraxütaren azpian haur bat marrazoa da.  
Besteen zangoak tiratuz janen ditu eta geroz eta marrazo gehiago izanen dira paraxütaren apzian.



txiskola

txiskola

txiskola

Txiskola da  
Txiskola pasa pasa  
Txiskola da  
Txiskola pasa pasa  
Txiskola pasa... pasa...  
pasa !







## **Oporretatik bueltan**

- Zer moduz Miren?
- Oso gaizki.
- Eta bestela?
- Bestela, ondo!

## **Txiste kontari**

Tren bagoi batean gaztea barre-algaraka ari da. Aldamenean dagoen neskak:

- Baina hi zer ari haiz horrela barrezka?
- Nire buruari txisteak kontatzen ari naun.

## **Etxea erosi nahi**

Mirenek eta Arantxak etxebizitza bat erosi nahi dute. Inmueble edo higiezin agentziako arduradunak trenbide ondoko etxebizitza bat ikustera daramatza:

- Ikus dezakezuen bezala etxea oso egoera onean dago.
- Bai, hori horrela da -erantzun dio Mirenek- baina trenbidea etxe azpitik pasatzen da eta hori nahikoa gogaikarria da.
- Arrazoi duzu. Trenbidea hor dago. Baina gauza bat esango dizut, trenen hotsa lehenengo hiru egunetan besterik ez da sumatzen; gero ohitu egiten zara eta sentitu ere ez duzu egiten.
- Ongi da. Hori jakinda gainera, badakit zer egin. Lehen hiru egunak hotel batean pasako ditugu eta listo!

## **Italiarren behatza**

- Ba al dakizue zergatik ez duten italiarrek behatz hau erabiltzen?
- !!!
- Nirea delako!

## **Aldrebes**

- Nahi al duzue txiste bat aldrebes kontatzea?
- !!!
- Bada, has zaitezte barre egiten!

## **Plastikozko baloiak**

Plastikozko bi baloi basamortuan zehar. Bietako batek burua altxa eta besteari hau esan dio:

- Aizu! Begira zer dagoen hemen.
- Zer?
- Kaktusssssssssssssssssssss

## **Kreditu txartela**

Ama batek besteari:

- Joan den astean kreditu txartela lapurtu zioten semeari.
- Ez esan! Eta jakinarazi al diozu udaltzaingoari?
- Ezta pentsatu ere! Lapurrak semeak baino bost aldiz gutxiago gastatzen du!

## **Poliglota**

- Edurne, zuk ba al dakizu nola esaten den “Bai!” ingelesez?
- Bai, noski!: “Oui!”
- “Oui”? Baina hori frantsesa da eta!
- Hara! Beste hizkuntza bat dakit!

## **Sagar eroria**

Nekane sagar batzuk &quot;lekuz aldatzera&quot; -lapurtzera ez esateagatik- joan omen zen baserri batera, eta zuhaitz gainean zegoela baserritarra agertu omen zitzaion begietatik sua zeriola:

- Zer habil hi hor, mukitsu alaena! -makila astinduz-.

Eta Nekane patxada ederrean:

- Eh, lasai, lasai! Nik sagarrak lurrean aurkitu ditut. Orain, berriro zintzilikatu nahian ari naiz.

## **Zinematik irtetean**

Larunbat gauero bezala, bi arkakusoak zinemara joan dira. Ateratzerakoan, batak besteari:

- Eta orain zer egin behar dugu?
- Ni logurak nago eta etxera noa.
- Orduan, baita ni ere!
- Konforme!
- Eta nola joango gara? Oinez, ala txakur bat hartuko dugu?

**Zein da zure lekurik/xokorik maiteena ?**

**Berehala oporretara joan behar bazenu...  
nora hauta zenezake joatea ? Eta norekin ?**

**Zer maite duzu egunerokoan ?**

**Zertaz irri egiten duzu?**

**Zertaz nigar egiten duzu ?**

**Nolakoa da zure etxea ?**

**Zein da zure janzerarik gustokoena ?**

**Zein da zure janaririk gustokoena ?**

**Zein da zure edaririk gustokoena ?**

**Zerk aspertzen zaitu ?**

**Zerk kexarazten zaitu ?**

**Gauza bat aldatzen ahal bazenu, zer litzateke ?**

**Zer musika mota entzuten duzu ? Zein talde edo kantari... ?**

Zer ikasi dut egun ?



Zer ikasi dut « egiten » ?



.....

.....

.....

.....

Erakutsi nahi dut ? Azaldu nahi dut ?

.....

.....

.....

.....

Zer ikasi dut egun ?



Zer ikasi dut « izaten » ?



.....

.....

.....

.....

Erakutsi nahi dut ? Azaldu nahi dut ?

.....

.....

.....

.....

Zer ikasi dut egun ?



Zer ikasi dut « jakintza » kondu?



.....

.....

.....

.....

Erakutsi nahi dut ? Azaldu nahi dut ?

.....

.....

.....

.....

Zer ikasi dut egun ?



Zer ikasi dut « egiten » ?



.....

.....

.....

.....

.....

Zer ikasi dut « izaten » ?



.....

.....

.....

.....

.....

Zer ikasi dut « jakintza » kondu ?



.....

.....

.....

.....

.....

